

# NOS MUEVE **BILBAO** BAT EGINIK



**JUAN MARI ABURTO RIKE**  
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA  
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



**ejaj**  
**pnv**

## 2. GIZARTE POLITIKAK

Gizarte-politika aurreratua izatea funtsezkoa da **pertsona guztien oinarrizko eskubi-deak bermatzeko eta Bilbo kohesionatua eraikitzeko.**

Gizarte-politika herrialde mailako politika da, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bitartez, lankidetzan koordinatua biltzen ditu 3 maila instituzionalak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiek eta Udalek Forales y Ayuntamientos). Sistema honetan, udalek eginkizun bikoitza dute zerbitzuak zuzenean emateko (batez ere mendekotasun moderatua duten edo bazterkeria arriskuan dauden pertsonetarako hurbiltasuneko zerbitzuak) eta zerbitzuetarako sarbidea behar duten pertsonak informatu eta laguntzeko, baita laguntzak banatzeko ere horietarako eskubidea dutenei.

2015-2019 epealdian, **gure gizarte-zerbitzuak indartzen eta hobetzen jarraitu dugu.** Horretarako, programa eta zerbitzu berriak abiarazi dira; hala nola, “Begirada Aktiboa” Programa, adinekoen bakardadea arintzeko, eta Adinekoentzako Orientazio Juridikoko Zerbitzua, eta Gizarte Larrialdiko Laguntzen erabateko estaldura bermatzen jarraitu da, horietarako eskubidea duten Bilboko 6.000 familiaren baino gehiagoren mesedetan. Araugintza arloan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Ordenantza onartu da. Gainera, Gizarte Politiken aldeko Ituna sinatu da, laguntza behar duten pertsona, familia eta kolektibo guztien beharrei erantzuneko dieten 46 neurri zehatz finkatuz. Jardunera honek guztiak kanpoko erakunde espezializatuen aitortpena lortu du, eta beste hiri batzuek bisitatu gaituzte Bilboko eremuan inspiratutako gizarte-politikak eraikitzeko asmoz.

2019-2023 agintaldirako helburu nagusia Udal Gizarte Zerbitzuen kalitatea indartzea izango da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbide bezala, Udalean ezarri dugun arreta-ikuspegi komunitarioari jarraiki, betiere **pertsonak ardatz dituzten zerbitzuak bermatuz eta esku-hartze sozialaren abangoardian kokatuz.** Horretarako, funtsezkoa izango da kudeaketa-sistema aurreratuak aplikatzea soluzio teknologiko berrien bitartez, gizartezerbitzuetako profesionalen prestakuntza bultzatzen jarraitzea, eta zerbitzu eta programen inpaktua ebaluatzen lana indartzea.

**Hori guztia, sozialki kohesionatuta dagoen Bilbo inklusiboa lortzeko helburuari lotuta, pertsonarik ahulenei eta behar handienak dituztenei inor atzean utzi gabe aurrera doan hiri honetako partaide direla sentiarazteko asmoz.**

## 2. GIZARTE POLITIKAK

### 2.1- ADINEKOAK, AUTONOMIAREN SUSTAPENA ETA MENDEKOTASUNAREN SOSTENGUA

#### HELBURUA

**Zahartze aktiboa** sustatu eta ahalbidetzen duen hiriaren eraikuntzan aurrera egitea, osasun aukerak optimizatuz, zahartu ahala pertsonen parte-hartzea eta segurtasuna bultzatuz eta hiriko errealitatearen dimentsio guztiak adinaren eta belaunaldiartekotasunaren ikuspegiaren arabera uz-tartuz. **Adinekoei zerbitzuak ematea**, etxean ahalik eta luzaroen gelditzeko aukera izan dezaten, eta hau ezinezkoa denean, kalitateko egoitza-baliabideetara bideratzea, mendekotasun mailaren arabera.

#### NEURRIAK

1. “Bilbo Uri Adeitsua Adinekoekin” delako III. Plana landu eta inplementatzea, Bilboko adinekoen behar eta eskari berriak ebaluatuz, zehaztuz eta horiei guztiei erantzun egokia emanaz.
2. Adinekoen elkartegintza sustatzea, hirian dauden elkar-teekiko lankidetzak aktiboari eutsiz eta erretiratuen nahiz eskualdeetako zentroak mantendu eta horien programazio bultzatzea xede duten programak indartuz, gure adinekoen parte-hartze soziala eta aisia aktiboa bultzatzeko asmoz.
3. Bikaintasunezko Etxez Etxeko Zerbitzua emanez, pertsonen ohiko bizitokian gelditzeko aukera erraztuko dien hurbiltasunezko eta giltzarritzko zerbitzu bezala.
4. “Urrats Bat Gehiago” bezalako zerbitzuak indartzea, mendekotasuna duten pertsonen zein familiarik gabe edo bakarrik bizi direnei joan-etorrietarako laguntza emateko, horien autonomia sustatzeko eta ingurunearekiko gizarte-harremanak errazten zein bakardadea arintzen lagun dezaketen jarduerak egiteko.
5. Bakarrik bizi eta sostenguzko sarerik ez duten adineko pertsonen bakardade eta isolamendu egoerak modu prebentiboan identifikatu eta detektatzea, “Begirada Aktiboa” Programa sakonduz eta komunitateko lana sustatuko duten ekimen berrien garapena erraztuz.
6. Adinekoentzako Orientazio Juridikoko Zerbitzua finkatzea.
7. Mendekotasun moderatua izanik etxebizitza komunitarioan plaza eskatu duten adinekoen eskariak artatzea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen jarraibide teknikoaren harira.
8. Bakarrik bizi diren pertsonentzat partekatutako etxebizitza-sistema garatzeko aukera aztertzea.

## 2. GIZARTE POLITIKAK

### 2.2- BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA

#### HELBURUA

Behar adinako baliabide pertsonalak, sozialak edo ekonomikoak eskaintzea, **pertsona guztiek bizitza-proiektu independentea eta normalizatua garatzeko aukera izan dezaten**, eta talderik ahulenei lehentasun nagusia ematea, oinarrizko beharrak estaltzeko moduko bizi-maila bermatzeko asmoz.

#### NEURRIAK

1. Banakako arreta goiztiarreko zerbitzua eskaintzea, bazterkeria-arriskuko egoerak detektatzeko eta egoera bakoitzari aplikatu beharreko irtenbideak zehazteko.
2. “Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan” ezarritakoari jarraiki, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen arreta egokia ematea, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan finkatutako ratioak betez, eta ezagututako edo aurreikusitako eskaria handiagoa duten kasuetan estaldura handituz.
3. “Etixerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategiaren” garapenean modu aktiboan parte hartzea, horretarako beharrezkoak diren udal zerbitzuak eskainiz.
4. “Etixerik Gabeko Pertsonen Udal Estrategia” garatzea, beste erakunde batzuekin lankidetzan, kalean bizi diren pertsonak ostatu-baliabideetara bidali ahal izateko.
5. “Etixerik Gabeko Pertsonen Udal Batzordea” dinamizatzea, Hirugarren Sektorearekiko koordinazio-organoaren izaerari eutsiz, arazo hauei aurre egin ahal izateko.
6. Lanbiderekiko lankidetzaren indartzea Diru-Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarako sarbidearen eraginkortasuna hobetzeko eta Gizarte Inklusioa errazteko, gizarte-babeserako zein laneratzen laguntzeko sistemen erreferentziazko tutorekiko koordinazioan aurrera egin.

## 2. GIZARTE POLITIKAK

### 2.3- GENERO-BERDINTASUNA ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIKA DIREN EMAKUMEEN ARRETA

#### HELBURUA

**Bilbo genero-berdintasun eraginkorraren erreferentziatzeko hiri** bihurtu-ko duten politika publikoak diseinatzea, eta bereziki gizartean nahiz eguneroko bizimoduan modu estrukturalen gertatzen den indarkeria matxista gainditzen laguntzea, eremu publikoan nahiz pribatuan.

#### NEURRIAK

1. “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Udal Plana” landu eta inplementatzea.
2. “Berdintasunaren aldeko Bilboko Emakumeen Kontseilua” herritarren partaidetzarako organotzat dinamizatzea, udalerriko bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialaren hainbat esparrutan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren printzipioa garatu eta bultzatzeko ahaleginean, Bilboko emakumeek demokratikoki parte hartzeko aukera izango dutela bermatzeko.
3. Herritarrek eraso sexistei “O Tolerantzia” adieraztea lortzea, auzoetako eragile sozial eta komunitario berriei emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoerak prebenitzeko eta indarkeria hau ezabatzearen aldeko borroka indartzeko sentsibilizazioa eta prestakuntza emango dien programen bitartez.
4. Hezkuntza arloko kanpainak eta ekintzak garatzea, jaietan eraso sexistak prebenitu eta ezabatzeko.
5. Genero nahiz Etxeko Indarkeriaren Biktimentzako Arreta Zerbitzua behar duten emakume eta adingabeen beharrak modu egokian artatuko direla bermatzea, gizarteratzeko nahiz laneratzeko eta etxebizitzarako sarbidea izateko laguntza berezia eman da.
6. Gazteen artean berdintasunezko harreman-ereduen eraikuntza sustatzea, “Ikastetxeetan Indarkeria Matxista Prebenitzeko eta Berdintasuna Sustatzeko Programa” bultzatuz.

## 2. GIZARTE POLITIKAK

### 2.4- ANIZTASUNA ETA IMMIGRAZIOA

#### HELBURUA

**Gizartearen ikuspegitik kohesionatuta dagoen Bilboren aldeko lana bultzatzea**, gizartean dagoen aniztasun gero eta handiagoaren balioa aukeratzat kudeatuz eta **bizikidetzaren aldeko hiritzat nabarmenduz**.

#### NEURRIAK

1. “Herritarren eta Aniztasunaren III. Udal Plana” landu eta inplementatzea.
2. Joan-etorrian dabiltzan pertsona migratzaileen kolektiboari eta Euskadira iristen diren errefuxiatuei beharrezko arreta ematen dieten gainerako erakundeekin lankidetzan jardutea.
3. Bazterkeria-arriskuan dauden eta adingabeak kargupean dituzten familia migratzaileentzako arreta.
4. Bazterkeria-arriskuan dauden pertsona migratzaileei laguntzeko aldi bateko ostatu-baliabideak finkatzea.
5. “Bilbo Kultura arteko Hiririari” buruzko komunikazio estrategia berriak diseinatzea, herritartasun plural eta inklusiboaren balioak sustatzeko.
6. “Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseiluaren” eginkizuna indartzea, kultura-aniztasunak hiriko eta auzoetako esparru eta jardueretan duen partehartzea begi-bistakoagoa izan dadin.
7. LGTBI kolektiboari sostengua ematea ekimenak aurrera atera ditzan eta herritarren arteko ikusgaitasun handiagoa izan dezan.

### 2.5- GARAPENERAKO LANKIDETZA

#### HELBURUA

**Bilbok onartutako elkartasun globalaren aldeko konpromisoa finkatzea**, pobretutako herrialdeetako garapen-prozesuak eraldatzen laguntzeko asmoz.

#### NEURRIAK

1. Bilbok pobretutako herrialdeen arte hartutako elkartasunezko konpromisoa handitu eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuekin lerrokatzea.
2. Lankidetzaren gardena eta arduratsua sustatzea, dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeei, balorazio-irizpideei eta aurrekontu-egikaritzeari

## 2. GIZARTE POLITIKAK

buruzko informazio zehatza eta ekintzen inpaktuari buruzko ebaluazioa tarteko dituen.

3. Lankidetzaren kudeatzeko eraginkortasuna areagotzea, lankidetzaren diharduten gainerako euskal administrazioekiko eta GGKEekiko aliantzak sustatuz Garapenerako Lankidetzako Bilboko Kontseiluaren bitartez.

### 2.6- ETXEBIZITZA

#### HELBURUA

**Auzoen habitagarritasuna hobetzea** eta erreferentziazko ingurunean **bi-zikidetzaren egokia izateko duintasunezko etxebizitzarik** ez duten pertsonentzako bizitoki arloko **ekintzak garatzea**, etxebizitza publikoen parkea eta zizkidurazko bizitokiak gehituz.

#### NEURRIAK

1. Jarduketaren integraleko egungo eremuetatik kanpo dauden etxebizitzaren premiazko birgaikuntzarako laguntza programa sortzea, baliabide ekonomiko eskaseko pertsonak bizi direnean edo pertsonentzako arriskua dagoenean.
2. Gazteei egun emantzipatzeko eta bizitza-proiektu independentea hasteko aukera ematen dien programetarako sarbidea erraztea.
3. Zuzkidurazko Bizitokiak alokairu-araubidean sustatzen eta garatzen jarraitzea, bereziki gazteei begira, emantzipatzeko aukera izan dezaten.
4. “Peñaskal auzoko Hiri-Birsorkuntzarako Plan Integrala” garatzea, irisgarritasunari arreta berezia emanez.
5. Irisgarritasunetik gabeko etxebizitzak gazteen eskura jartzeko eta etxebizitza irisgarriekin trukatzeko programa aztertzea.
6. Otxarkoagan errotzeko programari eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako planari jarraipena ematea.
7. Gizarte-proiektuekin konprometitutako gazteentzako etxebizitza programari jarraipena ematea.

## 2. GIZARTE POLITIKAK

### 2.7- OSASUN PUBLIKOA ETA KONTSUMO OSASUNGARRIA ETA ARDURATSUA

#### HELBURUA

Hiriko pertsona guztiei zuzendutako sentsibilizazioa, informazioa eta laguntza, ohitura eta bizi-baldintza osasungarriak eta osasun-sistema publikorako sarbidea izan ditzaten, oinarrizko eskubide bezala, eta **kontsumo arduratsua sustatzea**.

#### NEURRIAK

1. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan jardutea, osasuna sustatzea xeden duten programak garatzeko.
2. Ohitura osasungarriari buruzko kanpaina publikoak eta pedagogikoak garatzea.
3. Adinekoen kolektiboaren osasuna hobetzea helburu duten ekimenak areagotzea.
4. Elikagaiak ikuskatzeko planak indartzea Bilboko merkataritza esparruan, ostalaritza lokaletan eta elikadura-industrietan, hirian kontsumitzen diren elikagaien kalitatea bermatzeko.
5. Udal Kontsumo Bulegoak kaltetutako pertsonen eta kexei lotutako produktu edo zerbitzuak hornitzen dituzten enpresen artean egiten duen bitartekaritza lanari eustea.
6. Azoka tradizionalak hurbiltasunezko eta kalitatezko merkataritza osasungarriarekiko topagunetzat indartzea.
7. Udalak “Kontsumo Arduratsuaren Nazioarteko Egunarekin” hartu duen konpromisoa indartu eta horri buruzko jarduerak antolatzea, herritarrei ekonomia sozial eta solidarioa bistartzeko eta kontsumo arduratsuak pertsonarik ahulehen mesedeko aukerak sor ditzakeen eragile eraldatzaile bezala duen garrantzia jakinarazteko.
8. Kontsumo arduratsuaren aldeko gizarte eta auzo ekimenak sustatzea Bilboko auzoetan.



## 2. GIZARTE POLITIKAK

### 2.8- HIRUGARREN SEKTOREA

#### HELBURUA

**Hirugarren Sektore Sozialarekiko lankidetzaren aldeko apustu sendoa,** Euskadiko Hirugarren Sektoreari buruzko Legean ezarritakoaren harira, Bilboko gizartearen funtsezko aktiboa baita behar sozialei erantzuteko, politika sozialen diseinuan eta onura publikoko zerbitzuen prestazioan horren parte-hartzea erraztuz.

#### NEURRIAK

1. Egun dauden topaguneak indartzea, Bilboko pertsonarik ahulenek eskatzen dituzten zerbitzuak eta beharrak ebaluatzeko, horietan berritzeko eta modu azkar eta eraginkorrean erantzun ahal izateko.
2. Bilboko pertsonen borondatezko ekintza erraztea eta herritarrek antolatutako elkartasuna bultzatzea, elkartegintza eta gizarte parte-hartzea sustatzea xede duten programen bitartez.
3. Hirugarren Sektorearen eta Udalaren arteko lankidetzaren ingurune berrietan aurrera egitea, “Elkarrizketa Zibilaren Mahaian” ezarritako ildoek jarraiki.
4. Hirugarren Sektoreko entitateei lehentasunezko eginkizuna ematea gizarte esparruko esku-hartze zerbitzuak garatzeko lankidetzaren estrategiak egiterakoan, denboran iraungo duten aliantzak sustatuz eta behar adinako baliabide ekonomikoak eskainiz.
5. Udal kontratazioan klausula sozialak sartzea sustatzea, Hirugarren Sektoreko entitateei, eta bereziki Laneratzeko Enpresei eta Enplegu Zentro Bereziei erantzukizun publikoko esku-hartzean lankidetzaren publiko-privatua areagotzeko aukera erraztearren.

NOS MUEVE  
**BILBAO**  
BAT EGINIK